



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urriaren 21a

121. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langile publikoei 2012an etendako aparteko ordainsariaren parte ordainugabea ordaintzekoa. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dislexia duten ikasle guztien ikaskuntza errazte aldera ikasgelako metodologian lagunduko duen prozedura bat taxutu dezan. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan Pitillasko ikastetxe publikoan 2015-2016 ikasturtean irekita zegoen eta 2016-2017 ikasturtean kendu den eskolunitatea berrezartzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleentzako laguntza eta babes neurriak areagotzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da desgaitasuna duten pertsonen laguntza espezializatua emateko Nafarroako Gobernuaren jabetzako zentroetako enpresa batzordeei helaraz diezaien egoitza bakoitzean esleipena hartu duen enpresaren proposamen teknikoak. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztu du (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da laguntza psikologikoa ezar dezan oinarritzko osasun laguntzan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak pobrezia eta desberdintasunen aurka lanean jarraitzeko bere konpromisoa adierazten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu bi guardia zibilen eta haiekin zeudenen aurka Altsasun izandako erasoak. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Altsasun izandako indarkeriazko gertakariak. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Eliza Katolikoak Nafarroan immatrikulatutako ondasunen inbentarioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak erreklamatzeko prozedura judizialetan Nafarroako Gobernuak toki entitateei laguntza juridikoa emateari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, titulartasun publikoko beste ondasun batzuen aldean lehentasuna izan lezaketen titulartasun pribatuko inbertsioei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Estatuari Hitzarmen Ekonomikoa dela-eta egin beharreko ekarpenari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Mutiloan ikastetxe publikoa handitzeari edo berri bat eraikitzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Noaingo Bigarren Hezkuntzako Institutuko espazio-beharrizanen aurreikuspenari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, mendekotasunaren balorazioa egiteko 2011tik 2015era bitarteko eskatzaileei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (20. or.).
- Galdera, orain arte gizarteratze errenta deitutakoaren beharrizanak 2017an estaltzeko gastu-aurrekontu osoaren estimazioari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (21. or.).
- Galdera, prestazioa jasotzeko eskubidea izanik 2015etik hona horren zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa. Erantzuteko epea luzatzea (21. or.).
- Galdera, prestazioa jasotzeko eskubidea ematen dien balorazioa izanik 2015etik hona egoitza-zerbitzua jasotzeko zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa. Erantzuteko epea luzatzea (22. or.).
- Galdera, hainbat zerbitzu jasotze aldera mendekotasunaren balorazioa egin dakien zain sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonen kopuruari buruzkoa. Erantzuteko epea luzatzea (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak aldi baterako kontratatuzko izangai-zerrenda bat egitekoa. Gainditu duten izangaien zerrenda (23. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko langile publikoei 2012an etendako aparteko ordainsariaren parte ordaindugabea ordaintzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak foru lege proposa-mena aurkeztu dute, Nafarroako Foru Komunitate-ko Administrazio-ko langile publikoei 2012an eten-dako aparteko ordainsariaren parte ordaindugabea ordaintzekoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko langile publikoei 2012an etendako aparteko ordainsariaren parte ordaindugabea ordaintzekoa.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru lege proposamen hori irakurketa baka-rreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aur-keztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko langile publikoei 2012an etendako aparteko ordainsariaren parte ordaindugabea ordaintzekoa.

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Gobernuak langile publikoei zuzen-dutako hainbat neurri hartu zituen 2012an zehar; besteak beste, urte hartako abenduan ordaindu beharreko aparteko ordainsaria etetea. Neurri hori foru erkidegoko administrazio publikoen zerbit-zuko langileei ere aplikatu zien UPNren Nafarroa-ko Gobernuak.

Urte haren amaiera aldean, Nafarroako Parla-mentuak abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea onetsi zuen, zeinaren bidez aldi baterako osagarri pertsonal bat sortu zen erosahaltenaren galera berdintzeko, eragina 2012an berean izanen zuena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen ordainsariari dagokionez neurri hark izan-n lukeen ondorena arintzera bideratua. Halere, foru lege hori ezin izan zen aplikatu, Konstituzio Auzitegiak horren eraginkortasuna eten zuelako, Estatuko Gobernuak lehendakariak kasuko inpug-nazioa aurkeztu ondoren.

Krisi ekonomikoaren ondorioz administrazio publikoen zerbitzuko langile guztiek azken urteo-tan egindako ahalegina dela-eta (langileria-murriz-ketak, lansariak izoztea), eta sektore publikoari eman behar zaion bultzada dela-eta, neurriak eza-ri beharra dago, langile publikoek albait lasterrek berreskura dezaten galdutako erosahalmena.

Halatan, Gobernu berriak egutegi bat finkatu zuen Nafarroako Foru Komunitateko langile publi-koek modu mailakatuan jaso dezaten 2012an etendako aparteko ordainsariaren parte ordaindu-gabe hori, halako moduan non 2018ko urtarrilean eginen bailitzateke azken ordainketa.

Halaber, 2015aren amaiera aldean, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek erabaki bat hartu zuten, 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legean jaso zena.

Foru lege horren hogeita hamabosgarren xedapen gehigarriak, aurrekontu gehikuntzei buruzkoak, honako hau dio: “2016ko aurrekontu-ekitaldiaren barruan, “Laugarren xedapen gehigarria. Toki entitateek parte hartzeko funtsaren tratamendua” delakoaren barruan adierazitakoa kendu gabe, bai Ospitaleguneko sukaldeen itzulketa, bai 2012an kendutako aparteko soldatetik ordaintzeko dagoen zatiaren itzulketak lehentasunezkoak izanen dira beren kopurua 2016ko ekitaldian zehar handitzeko orduan, diru-sarrerei buruzko aurreikuspenak horretarako bidea ematen dutenean”. Xedapen hori indarrean da, nahiz eta gaur egun ez dagoen zurtasunik azken baldintza hori 2016a bukatu aitzin beteko ote den.

Halakorik gertatuko ez balitz, eta Gobernuak itzulketa egiteko hasiera batean finkatutako egutegia aurreratzeko xedez, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok honako lege proposamen hau aurkezten dugu, jakinda 2017an zehar gauzatuko direla Hitzarmen Ekonomikoa gaurkotze aldera Estatuarekin akordio bat lortzera bideratutako negoziatioak.

Artikulu bakarra.

Nafarroako Gobernuak era honetan ordainduko du 2012an langile publikoei kendutako aparteko ordainsaritik ordaindu gabe dagoen parte.

1. Etendako aparteko ordainsariaren 100eko 25, 2017ko urtarrilaren lehen bost egunetan.

2. Gainerakoa, 2017ko ekitaldian zehar itzuliko da, baldin eta inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

– Aurrekontuan aurreikusitakoa baino diru-sarrera handiagoak gertatzea.

– Estatuarekin Hitzarmen Ekonomikoa gaurkotzeko lortzen den akordiotik etortzea aurrekontuan jasotakoa baino funts-fluxu handiagoak Foru Komunitatearen alde.

– Aparteko diru-sarrerak gertatzea, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasotakoez harago, legeak alde aurretik ezarritako xedea ez dutenak, edo aurrekontuetan alde aurretik jasotako finantzagastuen murrizketak gertatzea.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2016ko urriaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen honako foru lege proposamen hau aintzat hartzea: “Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa. Proposamen hori Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak

aurkeztu eta 2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean sexu-joerarengatik edo genero-identitate

edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **epe bat hasiko da, 2016ko azaroaren 21eko eguerdiko**

hamabietan bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2016ko urriaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen honako foru lege proposamen hau aintzat hartzea: "Foru Lege proposamena, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean". Proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu eta 2016ko irailaren 7ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin Foru Lege proposamena, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Eskubide Sozialetako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost** egun balioduneko **epe bat hasiko da, 2016ko azaroaren 15eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dislexia duten ikasle guztien ikaskuntza errazte aldera ikasgelako metodologian lagunduko duen prozedura bat taxutu dezan.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita dislexia duten ikasle guztien ikaskuntza errazte aldera ikasgelako metodologian lagunduko duen prozedura bat taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko kide José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkurarako, heldu den urriaren 17ko Mahaian eta Eledunen Batzarrean urgentziaz izapidetzeko.

Dislexia, nagusiki, irakurtzeko zailtasunarekin dago lotuta. Zenbait sendagilek, espezialistak eta hezitzailek “irakur-nahasmendua” izendapena erabil lezakete dislexiari buruz hitz egitean. Halere, dislexiak idazmenean, ortografian eta are mintzamenen ere izan lezake eraginik.

Dislexia daukaten pertsonak ideia konplexuak uler ditzakete, baina zenbaitetan denbora gehiago behar izaten dute informazioa ulertzeko. Are informazioa prozesatzeko modu ezberdin bat ere behar izan lezakete; esate baterako, audioliburu bat entzutea, liburua irakurri ordez.

Oso garrantzitsua da kontuan hartzea irakurmen-arazok eta dislexiarekin lotutako beste zenbait arazok frustrazioa eragin dezaketela, eta autoestimua urritu. Eskolako lanen estresaren ondorioz, dislexia daukaten haurrek ekinean jarraitzeko motibazioa gal dezakete.

Auziaren alderdi ona da tresna eta estrategia ugari daudela laguntza emateko. Tresna horiek probatu egin behar dira, harik eta ikasle bakoitzari hobekien egokitzen zaiona aurkitu arte. Estrategia egokiak aurkitzea, eskola-errendimendua hobetzearekin batera, ona izan daiteke ikaslearen autoestimua igotzeko.

Hortaz, honako mozio hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Ikasgelako metodologian laguntzeko prozedura bat taxutu dezan, dislexia daukaten ikasle guztien ikaskuntzan laguntzeko.

2. Prozedura hori 2017ko urtarrilean abiaraz dezan ikastetxeetan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan Pitillasko ikastetxe publikoan 2015-2016 ikasturtean irekita zegoen eta 2016-2017 ikasturtean kendu den eskola-unitatea berrezartzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hartu beharreko neurriak har ditzan Pitillasko ikastetxe publikoan 2015-2016 ikasturtean irekita zegoen eta 2016-2017 ikasturtean kendu den eskola-unitatea berrezartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan Pitillasko ikastetxe publikoan 2015-2016 ikasturtean irekita zegoen eta 2016-2017 ikasturtean kendu den eskola-unitatea berrezartzeko.

Pitillasko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak egoera kezagarria bizi du. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua unitate bat kendu du, matrikula 23 ikaslekoa izatetik 19koa izatera jaitsi ostean.

Hori dela-eta, Lehen Hezkuntzako 2. mailatik 6.ra bitarteko 12 ikasle batu behar izan dira. Horrek kaltetu egiten ditu ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen garapena, eta zailtasunak eragiten ditu eskolak emateari dagokionez, maila oso ezberdinetako haurrek ikasgelak partekatu behar dituztelako, eta horrek nabarmen zailduko du hezkuntza-eskaintza. Iragan ikasturtean,

hezkuntza-eskaintza Haur Hezkuntzako unitate batekoa eta Lehen Hezkuntzako bi unitatekoa zen. Bi unitate horietatik bat kentzeak aukera-berdintasunik ez egotea dakar. Nafarroako Parlamentuan iragan urriaren 11n egindako lan bileran, hezkuntza erkidegoak adierazi zuen ikasturte hasierako lehen datuen arabera nabarmen jaitsi zirela matrikulak; izan ere bi ikaslek ikastetxetik alde egin zuten ikasturtea hasita zegoenean. Argi dago pentsatu zutela ez zutela jasotzen beste ikastetxe batzuetako hezkuntza-laguntza bera, frogatuta eta objektibatuta baitago irakasle-taldearen dedikazioa bikaina dela, hain giza baliabide gutxi izanda. Herrian nabarmen hedatu da Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren aldetik behar besteko laguntza ez jasotzeagatik matrikula galtzeko beldurra.

Kezka dago, hezkuntza-arloan, landa-eremu askotan, non ikastetxerik gehienak publikoak baitira, ez dagoelako behar adina tresna, beren gain hartzen dituzten ikasleen hezkuntza-premiak konpentsatzeko. Kasu honetan, egoera beste herri batzuetakoa baino are larriagoa da. Hezkuntza publikoa ezinbesteko osagai bat da kohesiozko eredu sozial bat, garapen iraunkorrekoa, eraikitzeko eta norbanako bakoitzak bere bizitza pertsonalaren proiektua gauzatzeko eskubidean laguntzeko.

Landa-eskola aukera gisa hartu behar da pedagogiaren ikuspuntutik, ezen ez arazo gisa. Antolamendu-eredu malguak ahalbidetzen ditu, ikasleen gaitasunak garatzea bultzatzen du, gurasoekiko eta ikasleekiko harremana estuagoa izatea errazten du, erkidegoaren parte-hartzea egiazkoa izatea ahalbidetzen du, eta hurbileko ingurunearekiko interakzio etengabea ezartzen du. Ratioak tratu pertsonalizatuagoa errazten du. Hori oinarritzkoa da irakaskuntzan. Bi faktore daude funtsean landa-eremu bat bizirik mantentzeko: bertan bizitzen gelditzeko prest dauden pertsonak egotea, eta lan- eta produkzio-alternatiba bideragarriak egotea.

Landa-eremuan eta landa-eremutik bizitzeko prest dauden pertsonak bertakoak dira gehienak, herrian hazi diren haur izandako helduak. Han bizi izandako guztiarekiko proportzioaren arabera da hazi diren ingurunean gelditzeko desioaren

indarra. Landa-eremua sustatzeko jarduketarik garrantzitsuenetako bat da, hortaz, gure azken haurrak gure herrietara lotzen dituen lokarria mantentzea. Hortik abiatuta, lan egin beharko da landa-eremuko bizitza duintzeko, lanbideetan nola-baiteko egonkortasun-bermeak emateko, produkzio-zerbitzutik abiatuta lan-eskaintza dibertsifikatzeko, eta abar. Hartara, landa-bizitza mantentzeko bokazioa eta desioa daukaten gazteak beren herrian bizitzen gelditu ahal izanen dira. Baina proiektu hori ezin da abian jarri bere herria maite duen haurrik gabe. Eta landa-eskolarik gabe ezin da egon bere herria edoskiko eta maitatuko duen haurrik. Landa-eskolak hiltzea da herriko haurrak hiltzea, herriak hiltzea. Norberaren inguruan eskolatuta egotea da deserrotzea ekiditeko gakoetako bat.

Pitillasko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoan une honetan aplikatzen ari den hezkuntza-politika mantentzen baldin bada, ikastetxe publiko hori desagertzeko bidean egonen da, ekitatearen eta aukera-berdintasunaren aldetiko desoreka dela medio.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du Legebiltzar honek onetsitako erabakia bete dezan, zeinetan premiatzen baita 2015-2016 ikasturtean zehar irekita egondako eskola unitatea 2016-2017 ikasturtean mantentzera Pitillasko HLHIPan.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleentzako laguntza eta babes neurriak areagotzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hartu beharreko neurriak har ditzan goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleentzako laguntza eta babes neurriak areagotzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan, goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleentzako laguntza- eta babes-neurriak areagotzeko.

Bizi garen garai hauetan sentiberatasun sozial handiagoa dago ikasgeletan aniztasunari arreta emateko beharri dagokionez, eta horrekin batera, hezkuntzan kalitatezko erantzun bat sustatzeko (emateko) asmoa. Kalitatearen ikuspegiak, ezinbestez, ardatz izan behar du ikasleei arreta ematea testuinguru normalizatu eta inklusibo batean, eta, aldi berean, arreta zorrotza eskaini behar die ikasleen banakako desberdintasunei.

Alde horretatik, aniztasunarekiko arretaren printzipioa azken hamarkadetakoa hezkuntza-legeetan agertu izan da, eta ikastetxeetan modu integratuan heldu izan zaio, bai eta programa berezien bidez ere, azken urteotan indarrean egon diren hezkuntza-legeen araberrako sakontasunarekin, eta, halaber, autonomia erkidegoetako plan berezietan, dagozkien eskumenez baliatuta.

Goi-mailako adimen-gaitasunaren definizioa konplexua eta dimentsio-aniztuna da, bere baitan biltzen dituelako alderdi kognitiboak, gaitasun sozial eta afektiboak, motibaziokoak, testuinguruak, eta abar. Goi-mailako adimen-gaitasunaren kontzeptuan faktore ugari biltzen dira, eta hainbat gaitasun batzen ditu, honako profil hauekin lotutakoak: goi-mailako adimena, jenioa, talentua, goiztiartasuna, miraria edo gorentasuna.

Esan genezake supergaitua dela bere adinari eta egoerari dagozkien ohiko gaitasunak baino altuagoak dituen pertsona, giza jokabidearen arlo batean edo batzuetan. Literatura espezializatuan hitz bat baino gehiago erabiltzen dira goi-mailako adimen-gaitasuna dutenak izendatzeko. Haietako batzuk, gaingaitua, supergaitua edo gaitasun handiko ikaslea, modu orokorrean eta desberdinu gabe erabili dira, zenbait gaitasunetan errendimendu handia duen pertsona aipatzeko.

Esate baterako, talentua edo miraria arlo guztiz jakin bateko trebezia handiari dagozkio. Talentu akademikoa egon daiteke, talentu matematikoa, hitzerako talentua, mugimendurako talentua, talentu soziala, talentu artistikoa, talentu musikala, sormenerako talentua, eta abar. Alegia, 'supergaitua' hitzak kasuistika asko ukitzen ditu, eta talentudunaren edo gaitasun handiaren diagnostikoa duten ikasleek ez dute zertan gaitasun guztietan nabarmendu, baizik eta batean edo batzuetan, beste batzuetan zailtasunak dituzten bitartean. Gizartean ez da ongi ezagutzen goi-mailako gaitasunak dituzten ikasleen ezaugarri hori, eta uste ohi da ikasle talentudun bat bikaina dela irakasgai guztietan, inola ere gertatzen ez dena.

Ezagutzen ditugun datu estatistikoek erakusten dute ikasle horiek arreta urria jaso dutela eta, oro har, ez dutela programa berezirik izan laguntza edukitzeko hezkuntza sistemari haien gaitasunari arioren aurrera egiterakoan. Laburbilduz, hezkuntzako ikerketak aitortzen du hezkuntzaren aldetik erantzun bat eman behar zaiela goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleei, hezkuntzako laguntzan dituzten beharrez bereziki egokitua, kasu bakoitzean hezkuntza-arreta pertsonalizatua planifikatuz, programa eta neurri bereziak sartuta, ikastetxeak abian jarri dituen ohiko hezkuntza-neurriak aski ez badira.

Abiapuntua izanik ikastetxeetako hezkuntza-erkidegoa osatzen duten pertsona guztiek ekitatea eta bikaintasuna sustatu behar dituztela ikasle guztientzat, pertsona bakoitza berdintasunez baloratu den hezkuntza-ingurune komun batean, hezkuntzatik erantzuna eman behar zaie goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleei, curriculumetik curriculumetik kanpokoaraino, eta hezkuntza-arreta "arruntetik" (ohikotik) "desberdinera" (pertsonalizatura) doan ibilbide jarraitu batean.

Lehenengo eta behin, identifikatzeko irizpideak elkartu behar dira, eta irakasle prestatuak eta familia kontzientziatuak eduki, elkarren arteko lana egin ahal izateko. Funtsezkoa da, halaber, ikasle horien detekzio goiztiarra, arreta egokia eman ahal izateko goi-mailako adimen-gaitasunaren ondoriozko beharrez bereziki, arreta hori gabe eskola-interesa galdu, asperdura jasan eta eskola-proteraino iritsi ahalko lirakeelako.

Gizartearentzat luxu onartezina litzateke mende honetan ere arretarik gabeko haurrak gertatzea, injustizia soziala delako eta "xahutzea" bihurtzen delako goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleak prestakuntza onik gabe edukitzea, gure etorkizuna, gizarte edo talde gisa, jakintzaren arloko aurrerapenen baitan egonen delako.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du:

- Susta dezan protokolo bereziak egitea, eskolatzearen hainbat unetan, goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleak detektatzeko.

- Aniztasunari arreta emateko planetan neurriak sar ditzan goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleendako arreta hobetzeko.

- Ikastetxeetan bultzatuz ditzan goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleendako programak, multzokatzeak eta metodologia egoki eta kolaboratzaileak, halako moduz non ikasle horiei erraztuko zaien taldean-ikasgelan integratzea eta ikasteko ahalmen guztiak garatuko dituzten.

- Bultzatuz ditzan irakasleen, zuzendaritza-taldeen eta orientazioko profesionalen prestakuntza, goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleen eta haiekiko hezkuntza-erantzun egokiaren gaineko ezagutzan. Delako erantzun egoki horrek ikasle horiei pizgarriak eta laguntza eskaintzeko metodoak eta didaktika egokiak bilduko ditu, bai eta programak, neurriak eta berariazko baliabideak ere.

- Familiendako prestakuntza-programak egitea, oinarriztatuta goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten haurren detekzio goiztiarra eta hezkuntza-orientazioa familiaren arloan.

- Osasun sistemekin lankidetzaren-protokoloak ezartzea, pediatria, psikologia, psikiatria, pedagogia, psikopedagogia eta abarreko profesionalen lankidetzaren sortu eta hobetzeko, detekzioaren fasean.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da desgaitasuna duten pertsonen laguntza espezializatua emateko Nafarroako Gobernuaren jabetzako zentroetako enpresa batzordeei helaraz diezaien egoitza bakoitzean esleipena hartu duen enpresaren proposamen teknikoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita desgaitasuna duten pertsonen laguntza espezializatua emateko Nafarroako Gobernuaren jabetzako zentroetako enpresa batzordeei helaraz diezaien egoitza bakoitzean esleipena hartu duen enpresaren proposamen teknikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Programa-akordioan zerbitzu publikoak babestea eta sustatzea jasotzen da, behar adina zerbitzu berri sor daitezen bultzatzea eta, ahal bada, pribatizatutakoak kudeaketa publikoaren esku uztea berriro ere.

Akordioaren arabera, pribatizatutako zerbitzu guztiak aztertuko dira, eta plangintza bat prestatu-

ko da, eta ituntze-sistema berrantolatuko da, ikuskatze-lana areagotuko da eta zerbitzu bakoitzean kontrol ekonomikoa eta langileria-politiken eta kalitate teknikoaren kontrola sendotuko dira.

Tuterako La Atalaya, Sarrigurengo Las Hayas, Iruñeko Valle del Roncal, Lizarrako Oncineda eta Cordovillako Infanta Elena desgaitasuna duten pertsonen laguntza espezializatua emateko zentroak dira, Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak baina enpresa pribatuek kudeatuak.

Berriki izan dugu datozen urteotan zentro horiek kudeatuko dituzten enpresen berri.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, La Atalaya, Las Hayas, Valle del Roncal, Oncineda eta Infanta Elena egoitzetako enpresa-batzordeei helaraz diezaien egoitza bakoitzean esleipena hartu duen enpresaren proposamen teknikoa. Halaber, aipatu dokumentazioa helaraz diezaien Las Torchas, Vencerol, Iturrarama, Mendebaldea, Zangoza, Tafalla eta Barañain etxebizitza funtzionaltako ordezkari sindikalei.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du La Atalaya, Las Hayas, Valle del Roncal, Oncineda eta Infanta Elena egoitzetan jarraipen-batzorde bat sor dezan, enpresaren, sindikatuen eta Gobernuaren artean, enpresak aurkeztutako proposamen teknikoa betetzen dela begiratzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan, zentro horietatik gutxienez ere bati izaera publikoa emateko.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza psikologikoa ezar dezan oinarrizko osasun laguntzan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita laguntza psikologikoa ezar dezan oinarrizko osasun laguntzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza psikologikoa ezar dezan oinarrizko osasun laguntzan.

“.. buru-nahasketen prebalentzia handia, oinarrizko osasun laguntzan sortarazten duten saturazioa, eta tratamendu psikologikoen eragimena kontuan harturik, gure inguruko herrialdeetan ebaluatutako esperientziekin batera, komenigarria da psikologoaren papera indartzea oinarrizko osasun laguntzan, eta beste arlo batzuetan ere; esate baterako, zainketa aringarrietan, onkologian edo neurologian” (Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioa, 2014, 101. or.)

Oinarrizko osasun laguntzako kontsultetatik % 30 arazo psikologikoren batekin daude lotuta. Haietatik, % 80-90 inguru lotuta daude antsietate eta/edo depresio sintomatologiarekin.

Gehienetan oinarrizko osasun laguntzako medikuak berak ematen du tratamendua, farmakologikoa batez ere, horretarako prestakuntza berezirik beti ez badu ere.

Esku-hartze horren helburua da sintomak leuntzea eta sufrimendua hein batean arintzea; hala

ere, epe luzean ez dio ezer irakasten pertsonari duen arazoari eta horri aurre egiteko moduari dagokionez, eta areagotu egiten du kronifikatzeko eta osasun mentaleko zetroak saturatzeko arriskua, azkenean deribazioa sortarazten duelako.

Psikofarmakoen kontsumo handiaren ondoriozko arazoak daude, eta gero eta ikerketa gehiagok adierazten dutenez, izaera psikologikoko esku-hartzeak eraginkorragoak eta ekonomikoagoak dira, epe ertain-luzean. Erakunde garrantzitsu batzuek –Erresuma Batuko Osasunerako eta Bikaintasun Klinikorako Institutua edo National Institute for Health and Clinical Excellence, NICE; Osasuneko Mundu Erakundea, (OMS) eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundea (OCU), besteak beste– esku-hartze psikologikoa gomendatzen dute lehen aukerako tratamendu gisa, eta adierazten dute esku-hartze hori eginen duen profesionalak prestakuntza espezializatua izan behar duela.

Psikofarmakoen gastuak gora egin du, eta Espainia Europako bigarren tokian dago, eta Europako batez bestekotik oso gora, hala antidepresiboen nola antsiolitikoen kontsumoan.

Beste herrialde batzuetako esperientziatik ikasi behar da: Norvegia edo Erresuma Batuan, esate baterako, psikologoak oinarrizko osasun laguntzan sartu ondoren, horren onurak egiaztatu dituzte: arretaren kalitatea hobetzea, profesionalen eta erabiltzaileen gogobetetasun handiagoa eta aurrezpen ekonomiko nabarmena.

Horri guztiari gehitu behar zaio Nafarroan gaixoei eta medikuei ezin dutela aukeratu zein tratamendurako deribazioa nahi duten osasun mentaleko zentroan. Oinarrizko osasun laguntzako medikuak ez du psikologo klinikoaren agendara sartzetik, eta ezin die hitzordurik eman gaixoei zuzenean profesional horiekin; beraz, esku-hartze psikologikoa oinarrizko laguntzatik aldentzen da.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Oinarrizko osasun laguntzako medikuei sarbidea ematea Osasun Mentaleko Zentroetako psikologo klinikoaren agendara, gaixoei ahalbidetzeko profesional horiekin hitzordua edukitzea.

2. Oinarrizko laguntzan esku-hartze psikologikoa pixkanaka ezartzea, zerbitzua emateko behar diren baliabideak jarritz, arreta integral eta zerbitzuetan integratu baten eredu batean.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak pobrezia eta desberdintasunen aurka lanean jarraitzeko bere konpromisoa adierazten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du:

– Pobreziaren eta desberdintasunen aurka lanean jarraitzeko, eta gizarte-koheren handiagoa xede duten politika publikoak bultzatzeko.

– Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguna dela-eta Nafarroan antolatzen diren ekitaldiekin bat egiteko.

– Garapen Iraunkorreko Helburuak bete daitezzen lan egiteko.

– Pobreziaren eta Desberdintasunaren aurkako Nafarroako Itun berri bat bultzatzeko”

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako adierazpen instituzional hau onesten du, urriaren 19an Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta:

– Egun horren karietara Nafarroan egiten diren ekitaldien alde dago, eta nafar herritarrei dei egiten die horietan parte har dezaten; bereziki, Bularreko Minbiziaren aurkako V. Lasterketa Solidarioan, zeina urriaren 23an egiten baita.

– “Nafarroa arrosaz tindatua” kanpaina parte hartuko du urriaren 19an; hartara, Nafarroako Parlamentua arrosaz apainduko du, eta gonbit egiten die ekitaldi horretan parte har dezaten Nafarroako Gobernuari, parlamentariei, bularreko minbiziaren aurkako borrokan lan egiten duten Nafarroako taldeei, herritarrei oro har eta hedabideei”

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu bi guardia zibilen eta haiekin zeudenen aurka Altsasun izandako eraso.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere gaitzespenik handiena adierazten du eraso justifikaezin hau dela-eta, bizikidetasun-arau oinarritzkoenak ere onartzen eta errespetatzen ez dituzten jokabide faxistena dena.

2. Bere babes eta elkartasun osoa adierazten dizkie jipoi basatia pairatu zuten guardia zibilei eta haiekin zeudenei, bai eta haien familiei eta Nafarroan dauden Guardia Zibileko kideei.

3. Berretsi egiten du Nafarroako Parlamentuak babestu eta aitortu egiten duela Guardia Zibilak Nafarroako Foru Komunitateko pertsona guztien segurtasunaren eta askatasunaren alde egiten duen lana.

4. Nafarroako udalak, kontzejuak, peñak eta kultur nahiz auzo elkarteak premiatzen ditu festetan zehar bizikidetasuna hobetzeko eta festagunetak anitzak, integratzaileak eta gorrotorik nahiz propaganda politikorik gabekoak izatearen alde lan egin dezaten”

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Altsasun izandako indarkeriazko gertakariak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu izandako indarkeriazko gertakariak.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die zaurituei.

3. Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du gure herriko bizikidetasunaren alde, atzean utzi behar baitira adierazpen honen zioen azalpenean azaldutakoen moduko ekintzak, zeinak iraganekoak baitira eta ez baitute gure orainaren parte izan behar”.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Galdera, Eliza Katolikoak Nafarroan immatrikulatutako ondasunen inbentarioari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Eliza Katolikoak Nafarroan immatrikulatutako ondasunen inbentarioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduen 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, idatziz erantzun diezazkioten:

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak erabaki bat onetsi zuen 2012ko ekainaren 15ean, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatu baitzuen “toki entitateekin elkarlanean, Eliza Katolikoak egindako immatrikulazioek ukitutako ondasun guztien inbentarioa” egin zezan.

Yolanda Barcina buru zuen UPNren Gobernuak ez zuen erabaki hori bete. Hartara, Nafarroako Parlamentuak beste erabaki bat onetsi zuen 2016ko apirilaren 7an, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatu baitzuen 2012ko ekainaren 15eko erabakia bete zezan, inbentario hori egiteari dagokionez.

Aurrekoa ikusirik:

Nafarroako Gobernuak egin al du Eliza Katolikoak gure erkidegoan egindako immatrikulazioek ukitutako ondasun guztien inbentarioa?

Inbentarioa egin ez baldin badu, hasi al ditu inbentario hori egiteko lanak?

Nafarroako Gobernuak jarri al da harremanetan ukitutako toki entitateekin, inbentario hori egiteko?

Iruñean, 2016ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak erreklamatzeko prozedura judizialean Nafarroako Gobernuak toki entitateei laguntza juridikoa emateari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak erreklamatzeko prozedura judizialean Nafarroako Gobernuak toki entitateei laguntza juridikoa emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen elehun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduen 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, idatziz erantzun diezazkioten:

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak erabaki bat onetsi zuen 2012ko ekainaren 15ean, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatu baitzuen “toki entitateen jabetzako ondarearen defentsa juridikoa” egin zezan, “jabetza publikoko ondasunak edo herri-lurrak direla agerikoa denean, baldin eta toki entitateek eskaria egiten badute.”

Yolanda Barcina buru zuen UPNren Gobernuak ez zuen erabaki hori bete. Hartara, Nafarroako Parlamentuak beste erabaki bat onetsi zuen

2016ko apirilaren 7an, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatu baitzuen 2012ko ekainaren 15eko erabakia bete zezan, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondarearen defentsa juridikoari dagokionez.

Programa-akordioak, berriz, honako hau dio: “toki entitateei haien ondare publikoaren jatorriari eta eskubideei buruzko informazio juridikoa” emanen zaie, “baita Eliza katolikoak bidegabeki immatrikulatutako ondasunak berreskuratzeko babes aktiboa ere”.

2016ko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran, berriz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatu zuen “Nafarroako toki entitateek edo zilegi duen gainerako edonork eskaturik abiarazten diren prozedura judizial guztietan ager zedin, xedea denean Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasun higiezinak berreskuratzea”.

Aurrekoa ikusirik:

Pertsonatu al da Nafarroako Gobernuak Eliza Katolikoak immatrikulatutako toki entitateen jabetzako ondasun higiezinak berreskuratzea xede duen prozedura judizialen batean?

Toki entitateek Nafarroako Gobernuari zenbat aldiz eskatu diote informazioa Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondarearen jatorriari eta eskubideei buruz?

Toki entitateek zenbat aldiz eskatu dute laguntza Eliza Katolikoaren aurkako prozedura judizial bat abiarazteko, jabetza toki entitateek errebindikatzen duten eta Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak direla-eta?

Iruñean, 2016ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, titulartasun publikoko beste ondasun batzuen aldean lehentasuna izan lezaketen titulartasun pribatuko inbertsioei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, titulartasun publikoko beste ondasun batzuen aldean lehentasuna izan lezaketen titulartasun pribatuko inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamendua-aren 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, idatziz erantzun diezazkioten:

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak erabaki bat onetsi zuen 2016ko ekainaren 2an, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzuen lehentasuna eman ziezaien "Nafarroako Gobernuaren edo udalen titulartasuneko eraikin historiko, artistiko eta monumentaletan beharrezkoak diren inbertsioei". Honako hau ere erabaki zen: "Kontuan hartuz izaera monumental, artistiko eta kulturala duten titulartasun publikoko eraikin askok behar duten inbertsioa, Nafarroako Gober-

nuak eta Vianako Printzea Erakundeak titulartasun pribatuko eraikinetan edozein inbertsio egin aurretik azterlan tekniko eta ekonomiko zorrotz bat prestatuko da, inbertsio hori ondare publikoko beste inbertsio batzuen aldean lehenestea justifikatuko duena. Azterlan hori Nafarroako Parlamentuko Kultura Batzordean aurkeztuko da, aipatu inbertsiorako arrazoiak azaltzeko eta parlamentu-taldean jarrera ezagutzeko".

2016ko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran, berriz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatu zuen Nafarroako toki entitate-ek edo zilegi duen gainerako edonork eskaturik abiarazten diren prozedura judizial guztietan ager zedin, xedea denean Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasun higiezinak berreskuratzea".

Aurrekoa ikusirik:

Ekainaren 2ko erabakia onetsi zenetik, aurrekontu-mugak kontuan hartuta, aurreikusten al da ekitaldi honetarako edo 2017korako inolako inbertsiorik titulartasun publikoko beste ondasun batzuen gainetik lehentasuna duten jabetza pribatuko ondasunetan?

Baiezkoan, zeintzuk eta nor dira inbertsio horietatik etekina atera lezaketen titular pribatuak?

Nafarroako Gobernuak aurreikusita al dauka, kasu hauetan, kasuko azterlana egitea, justifikatze aldera titulartasun pribatuko ondasunetan egindako inbertsioak titulartasun publikoko ondasunetako beste beharizan batzuen gainetik jartzea eta azterlan hori Nafarroako Parlamentuari igortzea parlamentu-taldean jarrera zein den jakiteko?

Iruñean, 2016ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Estatuari Hitzarmen Ekonomikoa dela-eta egin beharreko ekarpenari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Estatuari Hitzarmen Ekonomikoa dela-eta egin beharreko ekarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Juan Luis Sánchez de Muniáin foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko kontseilari Aranburu jaunak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 515 milioi jasotzen dira Estatuari Hitzarmen Ekonomikoa dela-eta ordaintzeko. Halere, egiaztatu da jada abuztuaren 5ean Hitzarmen Ekonomikoaren Zerbitzuak 613 milioi euroan ezarria zuela zenbateko hori, zeina Hitzarmen Ekonomikoaren Legean ezarritako kalkuluen arabera baita.

Praktikan, Gobernuak 153.425.000 euro ordaindu izan ditu hiru hilean behin, eta horrek 613,7 milioi euro egiten du urtean; alegia, Gobernua, praktikan, aurrekontuan onetsitakoa baino 100 milioi gehiago ari da ordaintzen.

Nafarroako Gobernuak nola egingen dio aurre onetsitakoaren eta aurrekontuan jasotakoaren artean egiaz dagoen 98 milioiko desfase horri? ·

Kontusailak blokeatu edo murriztera joko al da ekitaldiaren amaieran? Baiezkoan, zer kontusail blokeatu edo murriztuko dira? Zein izanen da zenbatekoa?

Zein da 2016ko laugarren hiruhilekoan Estatuari egin beharreko ekarpena dela-eta Hitzarmen Ekonomikoaren Zerbitzuak egindako ordainketa-aurreikuspena?

Nafarroaren eta Estatuaren ordezkariak formalki jorratu al dute inoiz aurrekontuan jasotakoaren eta egiaz ordaindutakoaren arteko desfase hori?

Nafarroako Gobernuaren ordezkarien eta Estatuaren ordezkarien arteko zenbat bilera egin dira auzi hori jorrazeko, Nafarroako Gobernuak apirilaren 19an biltzeari uko egin eta gero?

Nafarroako Gobernuak, hiruhileko ordainketa onartzeaz gain, idatziz adierazi al du inoiz ez datozela bat ordaindutako zenbatekoa eta egiaz ordaindutakoa eta teknikariek eta Hitzarmenaren Legeak adierazitakoa?

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin

Galdera, Mutiloan ikastetxe publikoa handitzeari edo berri bat eraikitzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Mutiloan ikastetxe publikoa handitzeari edo berri bat eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hedabide batean agertutako informazioaren arabera, Aranguren Ibarreko Udalak eta guraso-elkarteak eskatu dute Mutiloan ikastetxe publiko bat eraiki dadin, dagoena handitu ordez. Hezkuntza Departamentuak zer aurreikuspen darabil horri dagokionez?

Zer epe eta zer aurrekontu-premia uste du beharko direla ikastetxe berri bat eraikitzeko edo dagoena handitzeko?

Corellan, 2016ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Noingo Bigarren Hezkuntzako Institutuko espazio-beharrizanen aurreikuspenari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Noingo Bigarren Hezkuntzako Institutuko espazio-beharrizanen aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak zer aurreikuspen darabil Noingo Bigarren Hezkuntzako Institutuan heldu den ikasturtean ustez egongo diren espazio-premiak direla-eta? Zer epe eta zer aurrekontu-premia uste du beharko direla?

Corellan, 2016ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zein da Nafarroako ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kopurua eta ehunekoa, osoa nahiz partziala?

Datu partzialen kasuan, zehaztu kopurua eta ehunekoa mailaz, maila, ikastetxez ikastetxe, herriz herri eta hizkuntza-ereduz hizkuntza-eredu, eta zehaztu titulartasun publikokoak ala gizarte ekimenekoak diren.

Corellan, 2016ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, mendekotasunaren balorazioa egiteko 2011tik 2015era bitarteko eskatzaileei buruzkoa.

MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, mendekotasunaren balorazioa egiteko 2011tik 2015era bitarteko eskatzaileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2011n, 2012an, 2013an, 2014an eta 2015ean beren mendekotasunaren balorazioa egiteko eskatu dutenen kopurua.

Urte horietako bakoitzean baloratutako pertsona-kopurua eta balorazioan lortutako mendekotasun-maila.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, orain arte gizarteratze errenta deitutakoaren beharrianak 2017an estaltzeko gastu-aurrekontu osoaren estimazioari buruzkoa.

MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, orain arte gizarteratze errenta deitutakoaren beharrianak 2017an estaltzeko gastu-aurrekontu osoaren estimazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Orain dela gutxi eskatu genuen errenta bermatuaren 2015erako aurrekontuaren zenbatespena egiteko, eta lege proiektuaren memoria ekonomikoan aurreikusitako igoeraren berri emanez erantzun ziguten. Berez jakin nahi duguna da, zenbateko zehatz batekin, zein den orain arte gizarteratze errenta deitutakoaren eta errenta bermatuaren proiektua onesten denean errenta bermatua deituko denaren 2017ko beharrian guztiak estaltzeko gastu-aurrekontu orokorraren zenbatespena.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, prestazioa jasotzeko eskubidea izanik 2015etik hona horren zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa.

ERANTZUTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Eskubide Sozietako kontseilariak Parlamentuko Mahaiari eskatu dio honako galdera honi erantzuna emateko epea luza dadin: "Galdera, prestazioa jasotzeko eskubidea izanik 2015etik hona horren zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa," Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak egina.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Prestazioa jasotzeko eskubidea izanik 2015etik hona horren zain dauden pertsonen kopuruari buruzko galderari erantzuteko epea 2016ko azaroaren 7ra arte luzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, prestazioa jasotzeko eskubidea ematen dien balorazioa izanik 2015etik hona egoitza-zerbitzua jasotzeko zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa.

ERANTZUTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Eskubide Sozialetako kontseilariak Parlamentuko Mahaiari eskatu dio honako galdera honi erantzuna emateko epea luza dadin: "Galdera, prestazioa jasotzeko eskubidea ematen dien balorazioa izanik 2015etik hona egoitza-zerbitzua jasotzeko zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa," Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak egina.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Prestazioa jasotzeko eskubidea ematen dien balorazioa izanik 2015etik hona egoitza-zerbitzua jasotzeko zain dauden pertsonen kopuruari buruzko galderari erantzuteko epea 2016ko azaroaren 7ra arte luzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, hainbat zerbitzu jasotze aldera mendekotasunaren balorazioa egin dakien zain sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonen kopuruari buruzkoa.

ERANTZUTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Eskubide Sozialetako kontseilariak Parlamentuko Mahaiari eskatu dio honako galdera honi erantzuna emateko epea luza dadin: "Galdera, hainbat zerbitzu jasotze aldera mendekotasunaren balorazioa egin dakien zain sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonen kopuruari buruzkoa," Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak egina.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Hainbat zerbitzu jasotze aldera mendekotasunaren balorazioa egin dakien zain sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonen kopuruari buruzko galderari erantzuteko epea 2016ko azaroaren 7ra arte luzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak aldi baterako kontratatzeko izangai-zerrenda bat egitekoa.

Gainditu duten izangaien zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak aldi baterako kontratatzeko izangai-zerrenda bat egiteko deialdiaren epaimahai kalifikatzaileak aipatu deialdira aurkeztu diren izangaien behin betiko zerrenda aurkeztu du, lorturiko emaitzekin, bai eta epaimahai kalifikatzaileak eginiko bileren aktak ere.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 5. artikuluan esleitutako eskumenen arabera, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak aldi baterako kontratatzeko izangai-zerrenda bat egiteko deialdia gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda onestea. Hona hemen.

2. Agintzea zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin, bai eta Parlamentuko web orrian eta iragarki-oholean ere.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

	Izen-abizenak	Puntuazioa, 1. froga	Puntuazioa, 2. froga	Puntuazioa, guztira
1	AIZKORBE ESAIN, ROGELIO	37,67	38,00	75,67
2	GADAÑÓN GÁRRIZ, ELENA MARÍA	35,67	38,00	73,67
3	ARRARÁS ANDUEZA, MARÍA CONCEPCIÓN	33,34	34,34	67,68
4	VISCARRET DE CARLOS, JOSÉ JAVIER	29,35	30,35	59,70
5	PÉREZ NAVASCUÉS, FRANCISCO JAVIER	34,68	21,71	56,39
6	SÁNCHEZ ALDAZ, BEATRIZ	31,01	25,35	56,36
7	ÁLVAREZ RODRÍGUEZ, ELISA	30,35	25,69	56,04
8	DÍAZ DE ILARRAZA MATEOS, MARÍA	29,69	25,69	55,38
9	ÁLVAREZ VALDÉS, VERÉNICA	28,03	26,69	54,72
10	VILLAFRANCA JIMÉNEZ, ISABEL	30,67	23,68	54,35
11	GORRICO LARREA, MARÍA ISABEL	27,35	26,35	53,70
12	VILLAFRANCA BELZUNEGUI, MARÍA IZASKUN	27,68	25,34	53,02
13	MENDIVE SANTOS, JAVIER	27,36	25,36	52,72
14	GOÑI VIGURIA, OSCAR	28,35	24,36	52,71
15	ECHARREN ECHARREN, JUAN MIGUEL	27,69	24,69	52,38
16	LECUMBERRI ZARATIEGUI, EGIPTO	23,03	29,02	52,05
17	MIGUEL DE LA CÁMARA, MARTA	29,35	22,69	52,04
18	LIBERAL ORTIZ, MARÍA JOSÉ	23,35	28,68	52,03
19	GALAR APESTEGUÍA, MIRIAM	26,35	25,35	51,70
20	UGARTE IRISARRI, TERESA	27,35	24,03	51,38
21	RODRÍGUEZ CANTERO, ISAAC	28,01	23,34	51,35
22	GARDE IRIARTE, ANA CARMEN	25,36	25,03	50,39
23	MARTÍNEZ CHUECA, NIEVES JOSEFINA	28,02	22,03	50,05
24	MIR VALENCIA, MARÍA JESÚS	22,69	24,68	47,37
25	BLANQUET MUÑOZ, MARÍA DEL CARMEN	26,70	20,36	47,06
26	GARRIZ RECALDE, MARÍA	26,70	20,02	46,72
27	ALZÓRRIZ MARTÍNEZ, EDURNE	24,37	20,37	44,74
28	VILLANUEVA ORBAIZ, JOSÉ JAVIER	22,68	22,02	44,70
29	BERRUETA MARTÍNEZ, MARÍA DEL MAR	23,68	21,00	44,68
30	YANGUAS FORCADA, ALEJANDRO	22,71	21,38	44,09
31	MAYOR ARZOZ, MARÍA CRISTINA	21,37	22,69	44,06
32	AYESTARÁN AYESTARÁN, MARÍA PILAR	23,68	20,35	44,03
33	BALLESTEROS BAREA, RAQUEL	20,04	23,70	43,74
34	GONZÁLEZ SENOSIÁIN, MARÍA ESPERANZA	23,03	20,70	43,73
35	CRESPO OBANOS, MARÍA	21,69	22,03	43,72
36	DONCEL UNANUA, MARÍA ALEXIA	20,03	23,36	43,39
37	OLALDE GARCÍA, MARÍA CRISTINA BENEDICTA	20,70	21,03	41,73
38	ARENAL LÓPEZ, LETICIA ISABEL	20,35	20,69	41,04